

MERKATU SEGMENTAZIOA

Produktua gure bezeroen arabera garatu dugu, izan ere, bezeroak dira gure produktuari arrakasta ematen lagunduko gaituztenak. Horregatik, beraiei begira egokienak iruditu zaizkigun ezaugarriak kontuan hartuta zuzenduko ditugu kanalak, bezeroekiko harremanak eta elkarteak.



Argi dago txip hau edozein adineko pertsonak erabili dezaketela baina gure produktua, batez ere, 12-55 urte arteko pertsona gazteei zuzenduta egongo da, teknologia hoberen menderatzeko gai direnak baitira. Hala ere, esan dugun bezala, gure enpresak ez ditu beste adin tarteetako bezeroak baztertzen, izan ere, teknologiak aurrera egin duenez, edonor izango da gai aplikazio hau erabiltzeko. Gure merkuatua JMA giltza enpresarekin areagotzea da helburua.

Klase-mailari dagokionez, posizio-sozial guztietako pertsonak izango dute eskuragarri gure produktua, hala ere, klase ertainekoentzat eta baxukoentzat egongo da zuzenduta batez ere. Gure ustez, pertsona hauek garrantzia handiagoa eman diezaizkete beraien ondasunen galerari eta interes handiagoa edukiko dute gure produktuan.

Gure enpresa Euskal Herrikoa izan arren, Espainia osoan zehar salduko dugu gure produktua, elektronika denda lokaletan, ahalik eta bezero gehienetara iritsi dadin; biztanleria handiena duten edo bisitari kopuru handiena duten herrietan hain zuzen ere. Izan ere, herrietako merkataritza lokala sustatu nahi dugu eta aurrerapen teknologiko hau ezagutu eta erosteko aukera eman nahi diegu.

Hau guztia ikusiz, Espainia mailan merkatu masiboa lortu dezakegula uste dugu eta gerora, horren araberako publizitatea eta beste hainbat jarduera zuzenduko ditugu.

